

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2014-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den uztailaren 7an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Bizkaiko lurralde historikoaren (BLH) 2014ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena, Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA), Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde Autonomoaren (GUFE) eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten 19 erakundeen kontuez osatzen dena.

HKEEk **aldeko iritzia** jaulki du **BLHren Kontu Orokorraren** gainean, salbuespen izanik diruzaintza geldikinean eraginik ez duen kontularitzako doiketa bat eta Azpiegiturak, SAUren aktibo jakin batzuen balorazioaren gaineko zalantza.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den **Kontu Orokorraren finantza egoera** aztertu du eta bi egoera azpimarratu ditu: **doitutako aurrekontuaren emaitza hobetu egin dela** batetik, aurreko ekitaldikoa 36,9 milioi euroan gaintituaz, eta foru sektore publikoaren **zorpetzea** 16 milioi euroan **murriztu** dela, bestetik. **Gora egin dute** bai zergen kontzeptuko **diru-bilketak**, bai **erakunde konpromisoetarako ekarpenek ere**: Estatuari Kupoak, EA Eren Administrazio orokorrari aurrekontuak finantzatzeko eta Udalei Udalkutxa eta itundu gabeko zergetan partaidetza kontzeptuan egindako ekarpenek. Epaitegiak ondorioztatu du 2014ko diru-bilketak **behar hainbateko baliabideak** eskaintzen dituela aurreko ekitaldietako kopuru berean **egiazko inbertsioak finantzatzeko**.

Epaitegiak, berebat, **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak** bete direla adierazi du. Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailera Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzaizen eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

Aldundiak, erakunde autonomoak eta Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek **zuzentasunez bete dute** ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **legezko araudia**, nahiz unean uneko hutsak azaleratu diren **langileen atalean eta kontratazioaren atalean**; langileen atalean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsi dira borondatezko erretiroagatik, erabateko ezintasun iraunkoragatik

eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik BFAk eta GUFEk ordaindutako primak, Langileen Estatutuan aurreikusitako kausak egiaztatu gabe, eta kontratazioaren atalean GUFEk 949.898 euroren hornidurak eta zerbitzuak kontratatu ditu prozedura irekia saihestuta; Bizkaia-Bizkaialde Fundazioak 120.274 euroren zerbitzu bat publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatuta kontratatu du eta Enpresa Sektore Publikoko 5 erakundek ez dute hornidura elektrikoa eta/edo gas naturala publikotasun eta lehia printzipioei jarraiki kontratatu.

